



TOLOSAKO
UDALA

IRAGARKIA

Administrazio Publikoen Prozedura Erkideari buruzko Urriaren 1eko 39/2015 Legeak bere 133. artikuluan xedatutakoaren harira, Alkatetzak aurretiazko kontsulta publiko hau deitzen du, interesdunek parte har dezaten Hezkuntza azpisaileko dirulaguntzen Udal Araudiaren elaborazioan.

Aurretiko Kontsulta Publikoko Tramitea:

Sortzea:

Tolosako Udaleko " Hezkuntza arloko dirulaguntzak erregulatzeko ordenantza".

ZIOEN AZALPENA

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua ezartzen duenez, nahitaez eduki behar da dirulaguntzen plan estrategiko bat, eta bertan identifikatu behar dira, sailen dirulaguntzei dagokienez, dirulaguntzen aplikazioaren bidez lortu nahi diren helburu eta ondorioak, besteak beste.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrean ezarritakoa betetzeko, Tolosako Udalak 2020ko martxoaren 5ean egindako Osoko Bilkuran, 2020-2022 epealdirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen. Plan hori sailaren politika planifikatzeko tresna da, eta bere helburua da erabilera publikoa edo gizarte-interesa duen jarduera bat sustatu edo xede publiko bat lortzeko bultzada ematea, dirulaguntzen bidez.

Hezkuntza azpisailari honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkio:

- Tolosako ikastetxeetan osagarriak diren jarduerak bultzatzea eta Ikasleengan hainbat balio sustatzen dituzten jarduerak edo programak diruzlaguntzea.

2017an Tolosatzen Tolosako Plangintza partekatua 2. faseari dagokion 2017-2027 Ekintza Plana onartu zen, non 2. ildo estrategikoan Hezkuntza Sailari dagozkion hainbat helburu definitu ziren:

- Hezkuntza Komunitatea osatzen duten eragileen arteko koordinazioa bultzatzea hezkuntzako erronkei erantzuteko eta baliabideen osagarritasuna lortzeko.
- Ikasketa ez formaleko eskaintza zabaltzea, herriaren beharrei begira eta bitarteko berrien bidez.



TOLOSAKO
UDALA

XEDEA

Araudiaren xedea da Tolosako Udalak herriko hezkuntza zentroetako jardueran laguntzeko eta izaera hezitzailea duten ekintzak sustatzeko duen borondateari erantzun egokiagoa ematea.

Zehazki, ume eta gazteen heziketan lagungarriak diren kurrikuluaz/eskolaz kanpoko programak sustatzeko borondatea dago, hain zuzen ere, ume eta gazteen garapen intelektual, afektibo, artistiko eta harremanezkoa helburu duten eta balioak sustatzen dituzten ekintzak.

Era berean, erantzunkidetasuna eta kontziliazioa erraztuko duten politika publikoen diseinuan ekarpena egin nahian, Tolosako Udalak hezkuntza zentroetako kontziliazio programak sustatzeko laguntzak bideratu nahi ditu. Kontziliazioaren erantzukizuna ez da ukitutako pertsonena bakarrik, baizik eta gizarte osoarena, eta eraldaketa lortzeko hezkuntza, kultura eta gizarte-egiturak aldatzen hasi behar dira, bereziki gizarte-erakundeei, enpresei eta administrazioei dagozkigunak. Horretarako ezinbestekoa da zerbitzu publikoen estaldura eta horregatik Tolosako hezkuntza zentroetan lana eta familia bateragarri egiteko laguntzak ere bideratu nahi dira.

Ordenantza honen bidez emango diren laguntzak helburu beragatik jasotako beste edozein laguntza edo errekurtsioekin bateragarriak izango dira, beti ere, jardueraren kostua gainditzen ez bada.

OINARRI ARAUTZAILEA

- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzen orokorra
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- Diru-laguntzen Udal Ordenantza. Orokorra.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituena



TOLOSAKO
UDALA

ESPOISIZIO PUBLIKOA

Behar bezala identifikatutako herritar, erakunde eta elkarteek euren iritzi eta iradokizunak aurkez ditzakete maiatzaren 27a arte (hau barne) Tolosako Udalean:

- Pertsonalki joanda Tolosako Udaleko Erregistro Orokorrean (UDATEN).
- Sarrera erregistro elektronikoko bidez (www.tolosa.eus), edo
- Posta ziurtatuaren bidez (gutunazal irekia, posta bulegoan).

(Erakunde eta elkarteek euren iritzi eta iradokizunak elektronikoki erregistratu behar dituzte derrigorrean).

OHARRA: Proposamenari hasierako onespena emango zaionean, Udal honetako Ohiko Osoko Bilkuran, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta ekarpenak eta alegazioak aurkezteko aukera irekiko zaie interesdunei.

Tolosan, 2021eko maiatzaren 12a
ALKATEA
Olatz Peon Ormazabal



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2021IORD0010-IRAGARKIA/IRAGARKIA (TOLOSAKO UDALA)